

BILBAO / Luisa Etxenike idazle donostiarrak parte hartuko du "Irakurlearen Txokoa" zikloan

BILBO. Luisa Etxenike idazle donostiarra izango da bihar "Irakurketa Txokoa" zikloaren protagonista, arratsaldeko 19:00etan, Foru Liburutegian, Bilbon. Alex Oviedo izango da saioaren moderatzailea. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak antolatzen du jarduera hau, urtea amaitu arte, eta hilean behin saio bat eskaintzen du txandaka, behin euskaraz eta hurrengoan gaztelaniaz.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Luisa Etxenikek "El relato en la mirada de Ignacio Aldecoa" liburua aukeratu du bere lanaz hitz egiteko. Gaztelaniaz izango da hitzaldia.

Irakurketa talde horien bidez, irakurketan interesatuta dauden eta esperientziak, sentazioak eta pentsamenduak komunikatzeko gogoia duten pertsonak biltzen dira. Horrela, zikloa idazle eta irakurleen arteko topaleku bilakatu da. Parte hartzen duten egileek beren azken lana edo idatzi edo irakurri dituztenen artean gogokoena komentatzen dute, entzuleak beren gogoeten partaide eginez.

Idazle donostiarraren lanen artean daude, besteak beste, "El ángulo ciego" (2009ko Euskadi Saria), "Los peces negros", "Vino", "El mal más grave" eta "Efectos secundarios", eta "Ejercicios de duelo" eta "La historia de amor de Margarita Maura" bildumak.

Datozen hiletan, hainbat lagun izango dira topaketan, hala nola Anjel Lertxundi, Inazio Mujika, Francisco Javier Irazoki, Eider Rodriguez, Maria Maizkurrena Eli Tolaretxipi eta, zikloa bukatzeko, azaroan, Bernardo Atxaga.